

BETI ZUREKIN BETI ZUREKIN

GAUEKO BAKARDADEA. GOGOETAK.

Balkoiko aulki zahar batean eserita, iluntasunak ikusten usten ez zion zeruertza baino urrunagoan begirada finkoa, gogoetara ekiten zion Ainhoak lasaitasunez betetako une horietan. Iñakik, bere senarrak, hiru astetan behin ospitalean gaueko txanda aste oso batean zehar bete behar zuen eta bere sekretua bailitz, gau horietan ezti-ura katilu batekin gaua beilatzen zuen Ainhoak bere leku pribilegiatutik.

Zirimiri egiten zuen gau horiek bezala, aspaldian izan zuen istripuaren oroitzapenak aldentzea zaila egiten zitzaion. Euri apala egin zuen zoritzarrezko gau hartan ere. Agian euria izan zen erruduna, pentsatzen zuen noizbehinka. Ez da erreza norberaren arduragabetasuna onartzea: hogeita bi urtetako lau gazte nahiko edanek, ez zuten autoan sartzeko arriskurik ikusi. Bi bikote: Maider eta bere mutiko berria, Ainhoa eta Josu.

Oroitzapenak gero eta ahulagoak bihurtzen ziren denboraren poderioz, eta erruki sentiarazten zuen gertatukoa lehen bezala gogoratu ahal ez izateak, inposatutako zigor bat balitz bezala. Josuri segurtasun-uhala lotzea aipatu ziola bai gogora zezakeen, baita nola honek kasurik ez zion egiten ere; “Zertarako?” ziri egin zion. Eta ondoren, talka.

Ondorengo oroimena, gela zurbil bat zen; amaren aurpegi zurbila alboan; amantala zuriak edonon. Ospitaletik irten ahal izan zen arte, bi ebaketa eta nahiko epe luzea igaro behar izan zuen bere arimako kolorea islatzen zuten horma haiei so eginez. Azkenean, denbora eta errehabilitazioari esker, erabat sendatu izan ahal zituen bere zauriak.

Josuren heriotzari buruz ez zioten denbora luzea pasa arte ezer esan. Maiderrri kolpeak bizkarrezurra eraso egin zion eta nahiz eta zangoetan erabateko mugikortasuna ez galdu, gurpil-aulki batez baliatu behar izango zen bizitzan zehar. Zorionez, bere bizitzeko indarrak eta beti jario izan zuen alaitasunak ez zuten laga eta ez zen inoiz behera etorri. Mainerren mutil lagunaren zauriak ez ziren larriak izan. Hori izan zen beraz jakin zuten azken berria; ez zuten berriro inoiz ikusi ere.

Askotan asmatzen saiatzen zen nolatan garatu izango zen bere bizitza, hainbeste maitatu zuen Josu bere alboan oraindik izatekotan. Irribarre egin zuen bion elkarriketak gogoratuz: lau seme-alaba edukiko zituztela esaten ohi zuten gazteriaren inozopean! Hasperen egin zuen. Bere senarrarekin hamaika aldiz izan zuen eztabaida hura; baina Iñakik ez zuen sekula umeak edukitzeari buruz hitzik entzun nahi. Gero eta gehiago banandu egiten zituen ezadostasuna bihurtzen ari zen.

Iñaki ospitalean ezagutu zuen. Hainbeste denbora ohean etzanda erabat dohakabe sentitzen zen: lagunek laster laga zuten astero bisita egiteko ohitura, logelako mahaian unibertsitateko psikologi apunteak hautsez bete ziren... Gurasoaren bermea, liburuak eta noizbehinka ikusten zuen "telenobela" bere denbora-pasa bakarrak izanik, gogoz itxaroten zuen arratsalde zuzen zuzen erizain adeitsua etortzea; Iñaki. Eta horrela, pixkanaka, zarata handirik gabe, elkarrekin eroso zeudela onartuz; bi urte pasa ondoren Ainhoak Josurenganako malenkonia gainditu ahal izan zuenean, musu temati bat ematen laga zion. Barrenean nabari zuen sentimendu ezak Ainhoa harritu zuen; eta istripuak zauri fiskoak baino zertxobait gehiago eragin zionaz konturatu zen.

Hamalau urte bete igaro ziren zegoeneko. Erabat indartua aurkitu zenean, Maider laguntzarren eta Iñakiren euskarriei esker, ospitalean aritzen zen istripuetan

kaltetutakoei laguntza taldean, bizi izandakoa eta bukatu gabeko psikologi jakimenak erabiltzea erabaki zuen. Inoiz izan ez zuen esperientziarik atseginezkoena izaten zitzaion hura. Igandero, irribarretsu, biktima eta senidekoei bizitzari alde baiezkorra bilatzen laguntzeko hara zihoan. Denborarekin, bere laguna Mainer kaltetuta izatetik, boluntario izatera pasa zen ere. Horretaz aparte, denda txiki batean berehala jostun giza lana aurkitzeak bere burua lanpeturik edukitzera lagundu zuen. Bitartean, Iñakirekin ezkondu zen, baina ez zuen gertakizun nabarmen gehiagorik gogoratzen hamarkada eta erdi horretan. Dardara nabaritu zuen gorputzean: hain arin ari zitzaion denbora pasatzen!

GAUEKO BAKARDADEA. BETI ZUREKIN.

Gogoetak alde batera utzi eta erlojua begiratu zuen: goizeko ordu biak laurden pasata! Biharamunean dendan hamarretan egon behar zen. Azken begirada bota zion ikuspegiari bere toki estrategikotik: ilargia eraikinaren atzetik desagertzeko gertu zegoen. Egongelara sartuko zenean, zer edo zer deigarri gertatu zitzaion. Berriro so egin zuen kalera: balkoitik ikus zezakeen enparantzako eserleku batean eserita, trajez jantzitako lagun batek sakonki begiratzen ari zitzaion. Ainhoak urduri, nerabe bat bailitz, hotzikara nabaritu zuen eta egongelara sartuko zenean, mutilak nola begirada besteratu barik, arrosa bat eserlekuan utzi eta herrenka alde egiten zuen ikusi zuen. Orduan konturatu zen, ibilera horiek ikusita, ospitaleko laguntza taldera etorri berri zen gizon misteriotsua zela. Aste pare bat zeramatzan azkeneko aulkietan eserita, mutu, behari. Ezinezkoa zen berarengan arreta ez jartzea, pelikuletan baino ikusten ez zen horietakoa baitzen, pentsatu zuen Ainhoak. Istripuak lepoa erreta eta eskuineko hanka mugikortasunik gabe utzi arren, itzelezko mutila zen hura.

Ohean sartu zen luze pentsatuz eta Iñakiren giltzak atean entzun zituenean, oraindik

esnaturik, lo sakona disimulatu zuen.

Iñaki gauez lanean zihardun aste horretan, gauero irten zen Ainhoa balkoira ezti-ura katiluarekin. Eta gauero itxaroten ari zitzaion bere miresle trajeduna, arrosa eserlekuan utzi, eta herrenka pixkanaka urruntzen.

Larunbata. Iñakik gauez lan egiten zuen azken gaua. Aurrekoak bezala, Ainhoa balkoira irten zen. Katiluari zurrut eman ziolarik, atean hatz-koskorrekin norbait deika ari balitz bezala nabaritu zuen. Ainhoaren bihotza bularretik atera nahian moduan, etengabe hasi zen taupadan. Egongelako erlojua begiratu zuen eta gaueko hamaika eta erdiak pasata zirela adierazten zuen. “Nor zebilen atea joka ordu haietan?” Aterantz hurbiltzen ari zenean, zarata eten zen eta behatxulotik begiratzean ez zuen inor ikusi. Atea irekitzean, ordea, pergamino bat bailitz ertzak kontu handiz erreta zituen ohar bat eta arrosa zuri bi, lanpasean jalki. Oharra eta loreak hartu eta etxean sartu zen atea itxi ondoren. “Beti zurekin” zioen oharrak. Balkoira korrika atera zen: bertan zegoen, jaun misterioitsua. Aurreko gauean baino galantagoa, agur dotorea egin zion, printzesatako pelikuletan bezala eta iskina hartu ostean, bere begi-bistatik desagertu zen.

Oihu egiteko beharra sentitu zuen. Erlojua begiratu zuen: hamabiak. Hobe oihua beste ordu baterako utziko balu.

Iñakirengan pentsatu eta begirune pixka bat merezi zuela uste zuen. Haien arteko erlazioa, batez ere seme-alaben gaia ebatzirik geratu zenetik, ez zen bikaina. Beti izan zen senar ona, ordea.

Baina Ainhoaren jakingura gero eta nagusiagoa zen. “Entzun omen zion inoiz bere izena lagun taldean?”, “zer espero ote zuen Ainhoaren partez?” Nahiz eta onartu nahi

ez, irrikan zegoen hurrengo goiza hel zedin; igandero bezala ospitalean elkar ikusiko zirenean.

IGANDEA.

Ohi baino laurden bat gehiago ibili zen Ainhoa armairuaren aurrean: bi prakak eta gona bat jantzi ondoren, gona gorria hautatu zuen. Iñakiri logelako atea ireki eta ospitalera joan zen.

- Hara! Txano-gorritsu! – entzun zuen bere atzean Mainerren ahotsa. – Nolatan hain dotore?

Garrantzirik gabeko keinua egin zion lagunak eta gurpil-aulkia bultzatu zuen. Bi lagunak sartu zirenean, aretoa arakatu zuen eta azkenengo ilaran ikusi zuen bere bilaketaren helburua. Tamalez, hainbat pertsona eserita zeuden jadanik eta ezin izan zen bakardadean berarengana gerturatu.

Sasoi osoan ez zuen parte hartu eta Ainhoa, nahiz eta hamaika modu ezberdin bururatu, ez zen azkenean berari zuzentzera ausartu. Aurrekoa, Iñakiren azken gaua izan zen ospitalean eta bi aste barru ez zuen izango gaua balkoian bakarrik berriro ere igarotzeko aukerarik izango. Bukatzean, patua bere kontrari jarri izan bailitz, ospitaleko idazkari batek txosten bat ematera gerturatu zitzaion eta begi ertzetik nola atetik bere pauso traketsekin irteten zen ikusi ahal izan zuen. “Hurrengo igandean ez dut aukera galduko”, hitz eman zion Ainhoak bere buruari.

Baina hurrengo bi igandeak ez zen aurkeztu bere miresle herrena. Ezta Ainhoak badaezpada balkoitik hainbat begirada bota zituen gauetako bat ere ez.

- Euria egingo balu, garbigailuko arropa barruan eskegi beharko genuke – erantzun zion Ainhoak Iñakiri, honek zer ari zen balkoitik hainbeste beha galdetu zionean. Eta gizajoak sinetsi, pentsatu zuen emazteak.

GAUEKO BAKARDADEA. ILARGI BETEA.

- Gaueko txanda gorroto dut – esaten ari zen Iñaki, bere emazteak eskuko poltsa ematen zion bitartean.

Atetik irten zenean, Ainhoa hasperen luzea egin zuen. Damu sentitzen zen, baina momentu hura heltzeko gogo handiak izan zituen igaro ziren bi asteetan zehar.

Ezti-ura prestatu zuen eta balkoira irten zen ea mutila berriro agertuko ote zen itzaroteko asmoz. Ez zuen itxaron behar, ordea, eserita zegoen betiko eserlekuan hari begira. Arroza eserlekuan utzi zuen eta eskua bihotzean jarrita, pixkanaka joan zen liluraturik zegoen neska begiratzeari utzi barik.

Gutziz desagertu zenean, Ainhoa zerurantz begiratu zuen: ilargi betea zegoen. Gau ederra zen hura. Eta hurrengo, baita hurrengo ere. Nobelaren Julieta bezala ikusten zuen bere burua Ainhoak; gauero bere Romeo debekaturen zain.

Larunbateko gaua. Azken gaua etxean bakarrik. Hamaikak. Balkoira atera zen. Anbulantzia baten sirenak isiltasuna puskatu zuen. Hamaika eta erdietan betiko eserlekuan ikusi zuen bere salbatzailea. Mutilaren begiekin bat egin zuenean, hura altxatu eta berriro ere gauaren iluntasunean desagertu zen. Ainhoak korapiloa nabaritu zuen sabelean.

Atean joka ari ziren. Atea berehala ireki eta atondoan inoiz ikusi ez zuen gizonik ederrena ageri zen. Arrosa gorria eskaini zion eta Ainhoak, liluraturik, etxean sartzen utzi zion burmuina non utzi zuen gogoratu barik, “zer demontre egiten ari naiz?”

Ez zuten hitzik esan. Etxea hutsik eskaintzen zien babesaz gozatuko zuten ordu eskasez jakitun balira bezala, beren desira askatzen utzi zuten, denbora luzez gordeta egon balitz bezala. Ainhoak, ikusle bat bailitz, bere maitalearen esku joko trebeetan parte hartzen zuen, inoiz asmatu ezin izango zituen gozamenak sentituz. Bere gorputz ahaztua begiratzen zuten begiek irrirts suharra islatzen zuten, atal bakoitzaren emetasunaren jakitun eta musu bakoitzak, emakumearen azal guztia dardarazten zuen.

IGANDEA.

Ospitaleko laguntza taldera joana beharra zuela pentsatzeak arnasa estutzen zion. Buruko mina asmatzea pentsatu zuen, baina beste aldetik, joateko desiratzen zegoen. Ez zuen lorik egin, eta Iñaki etxera heldu eta lotan geratu bezain laster, ohetik altxatu eta etxea txukuntzen hasi zen, geldirik egotea ezinezkoa egiten baitzizaion.

Goizeko bederatziak. Ospitalera joateko ordua. Lo ezak eragindako nahastearen erruz erabaki bakarra hartu ezin barik, jaka hartu eta arrapaladan irten zen etxetik, damutu baino lehen.

Doi-doi heldu zen Mainerri magalean zituen liburuxka batzuk banatzen laguntzeko. Mainer azkeneko ilaratan banatzen ari zen; harantz begiratu zuen. Etorria zen. Bere begirada sakonarekin begiratzen zuen. Ainhoak begirada bestalderantz eroan zuen; ez zuen bere betazpiak nabaritzarik nahi.

Deseroso sentitu zen bat-batean eta erdi ordu barru, koldarki ihes egin zuen etxera. Bidean zirimiru tanta batzuk jauzi ziren bere umorea okerragotuarren. Memelo halakoa!

Aukera horretan pentsatzen pasa zituen hurrengo bi asteak. Romeoren berririk, berriro ere ez. Iñakik etxean lo egiten zuela jakingo balu bezala, aurreko aldian bezala, ez zen ez gauero enparantzan, ez igandero ospitalean agertu. Gogoratzen zituen bi aste luzeenak bizi izan zituen Ainhoak orduan.

GAUEKO BAKARDADEA. ELKARREKIN.

Hogei urte balitu bezala, urduri, zirraraz bete. Horrela itxaroten zuen Ainhoak bakarrik geratzen zen gau guztiak bere maitalea. Zegoeneko hiru hilabete zeramatzaten jolas sekretu horrekin. Lehenengo sei gauak elkarri begiratzen zioten balkoitik; enparantzatik. Ez zegoen harreman gehiagorik. Begirada horrekin, elkarren artean sortu zen maitasuna sendotzen zuten. Enparantzan, hitzik gabeko mutilak, arrosa bat uzten zion eserlekuan. Balkoian, maitasuna gogoratu zuen neskak, eskuarekin agurtzen zuen.

Larunbat gauero, Ainhoak bere etxeko eta bihotzeko atea irekitzen zizkion. Igandeetan, inguruko kideek jolasetik at, begiradak elkartzen zituzten.

IGANDEA.

Oraingo honetan, ordea, ezberdina zen. Azken aldiko ondoeza ez zen bakarrik urduritasunak sortua. Haurdun zegoen.

Haurdun. Ainhoak ezin izan zuen baizik eta bere zorionean pentsatu. Igandean, ospitalera joan aurretik Maider bere etxera bilatzera joan zen; buruan zuen nahastea

ebatziko zuen norbait behar zuen bere alboan. Bere lagunaren isiltasunak gertatutakoaren garrantzia ikustarazi zion.

Burumakur abiatu ziren laguntza taldera. Ainhoak bazekien egoera horri aurre egin behar ziola eta ezin zuela jolas hura gehiago luzatu. Erabaki bat hartu behar zuen. Eta bere maitalea partaide egin nahi zuen.

Aretoan sartu zirenean, iskina batean geratu ziren. Mainerrek galdera keinua egin zion: “Nor da?”

- Azken ilaran dagoen mutila – erantzun zion besoa luzatuz.

Mainerrek, gelako azken ilarak begiratu zituen. Hutsunea besterik ez zuen ikusi. Larriturik, bere laguna begiratu zuen.

- Ainhoa, laztana, hor ez dago inor.